

JOKO ARDURATSURAKO JARDUNBIDE EGOKIAK



Bingoetako langileak

Euskadi, auzolana


EUSKO JAURLARITZA

SEGURTASUN GAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD



Edizioa: Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritza.
Segurtasun Saila. Eusko Jaurlaritza.

Koordinazioa: Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien Elkarte (ASAJER).

Diseinua eta maketazioa: Begoña Paino Ortuzar.

Itzulpena: ESAN Traducciones, S.L.

Inprimatzailea:

Lege-gordailua:

Joko Arduratsurako Jardunbide Egokiak
Bingoetako langileak





Jokalariaren profila 25 urtetik 34 urtera bitarteko gizon bat da, edo adinez nagusiagoa, 55etik 64ra bitartekoa, ezkongabea, lana duena eta banaka jolasten duena. Hasteko adina 19 urte da, eta joko-makinekin hasten da. Hori ere bada beren arazoan jatorria.



Joko arduratsuak, besteak beste, **honako printzipio hauek** izango ditu oinarri:

- SOZIETATEAREN GIZARTE-ERANTZUKIZUN**
kontzeptua horrela definitzen da: oinarri
etikoetan eta langileekiko, jokalariekiko,
gizartearekiko eta ingurumenarekiko begiru-
nean oinarritutako enpresa jarduera ireki
eta gardenen multzoa.





Zorizko jokoetan irabaztea edo galtzea ez da jokalariaren trebetasunaren araberakoa soilik, zoriak edo zorteak esku hartzen du eta.

Diruak garrantzia handia du joko horietan; izan ere, jokalariai zenbateko ekonomiko edo ondasun jakin bat arriskuan jartzen du apustu baten bidez. Eta hori emaitza asmatzearen mende egoten da normalean: makina txanponjaleak, bingoa, kasinoa, loteriak, Once, pokerra, kirol-apustuak...

Zorizko zenbait jokotan jokolariaren trebetasunak eragina izan dezake jokoaren garapenean, adibidez, karta-jokoetan.

JOKO-MODALITATEAK

AURREZ AURREKO JOKOA

Aurrez aurreko jokoaz ari gara pertsona joaten denean joko-establezimendu batera: tabernak, joko-aretoak, apustu-aretoak, bingoa, kasinoa...

LINEAKO JOKOA

Joko mota hori Internet bidez egiten da. Oro har, jokalaria joko-atari batean sartzen da. Modalitate hori oso azkar hedatu da azken urteetan.

Modalitate erakargarriagoztat hartzen da, haren ezaugarriak direla eta, mendekotasuna erraztu dezakeena. Hauexek dira ezaugarri horietako batzuk:



- **Eskuragarritasuna.**
- **Anonimatua.**
- **Arriskuaren hautematea txikitzen du.**
- **Jokoaren bidez arazoetatik eta kezketatik ihes egiteko aukera handitzen du.**
- **Ingurunetik deskonektatzeko erraztasun handiagoa.**
- **Apustuaren eta emaitzaren arteko azkartasuna.**
- **Interakzioa.**
- **Simulazioa. Lineako jokoen web-orri gehienek eskaintzen dituzten “demoak”, zeinetan benetako diruarekin apusturik egiten ez den.**

JOKOAREKIKO MENDEKOTASUNA EDO LUDOPATIA

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, adikzioa gaixotasun fisikoa eta psikoemotionala da, substantzia, jarduera edo harreman batenganako mendekotasuna edo beharra sortzen duena.

Zeinu eta sintomen multzoan faktore biologikoak, genetikoak, psikologikoak eta sozialak daude. Zorigaiztoko gaixotasun progresiboa da, kontrolik ezako gertakizunez, pentsamenduaren distortsioz beterikoa. Gainera, gaixoez ez dute onartzen gaixo daudela.

Jokoarekiko mendekotasuna duten pertsonek ez dute beren joko-jokabidea kontrolatzen: denbora eta diru asko erabiltzen dute jolasteko, zailtasunak dituzte jolasten gelditzeko; jolasteari behin betiko uzteko saiakerak egin arren, ez dute lortzen; ondorio negatiboak gorabehera, jolasten jarraitzen dute, eta, ondorioz, beren ongizate psikosoziala eta beren familiarena jartzen dute arriskuan, bai eta beren lana, gizarte-harremanak, eta ekonomia ere.

“**Adikzioek pertsona harrapatzen dute, aske izatea galarazten diote eta arazoak sortzen dizkiote bere inguruarekin.**”





Entretentzeko edo asetzeko
jokatzen du. Bere jokabidea
kontrolatzen du.
Gizarteak onartutako jokoetara
jokatzen du.

Egunero edo maiztasun handiz jokaten du. Diru-gastuak arazoak sortzen dizkio batzuetan. Zenbaitetan ez du jokatzeko nahia kontrolatzen.

Mendekotasun emozionala eta joko-jokabidearen kontrolaren galera. Denbora eta diru gehiegi erabiltzen du jokoan, pentsamendu obsesiboak ditu, galdutako dirua berreskuratzeko beharra sentitzen du, optimismo irrazionala du...

Jokotik bizi da. Trebetasuneko jokoetan parte hartzen du. Ez die uzten emozioei bere burua menderatzen.

Orain ez du irabazteko jokatzeko, galdutakoa berreskuratzeko baizik. Maileguak, jokoan gastatutako soldata, lapurreta edo iruzur txikiak, familia zein lan-harreman hondatuak... Horiek dira sortzen diren ondorioetako batzuk, eta, dirurik lortzen ez dutenez eta azkenean lortutakoa galduko dutenez, arazoak txarrera egingo du. Jokalariak, orduan, arazo bat duela jakin eta haren familiari, lagunei eta abarri aitortu behar die. Eta jokatzeari utziko diola erabaki eta promes egiten du. Horrek denbora gutxi iraungo du, eta, laster, dirua berreskuratu bezain pronto jokatu du berriz.

ETSIPEN-FASEA

Fase honetan jokoak intentsitate handia du jokalariairengan, eta jokalaria jolasteko baino ez da bizi. Ez da familiaz, lagunez eta lanaz arduratzen. Horrek arrisku handiak dakartza: arazo finantzario eta legal handiagoetan nahastea. Puntu horretan, jokalaria patologiko gehienek lana galdu dute jadanik. Urduritasuna eta suminkortasuna handitzen zaie, lo egiteko arazoak dituzte, gutxi jaten dute eta bizitza ez zaie atsegina

egiten. Nekatuta sentitzen dira psikologikoki eta fisiologikoki; laburbilduz, etsita. Horrek guztiakikara-egoera eragiten dio jokalariaire, honako hauengatik: zor handiengatik, dirua azkar berreskuratu nahi izateagatik, bere familiaren eta lagunen besterentzeagatik (banaketa edo dibortzioengatik ere bai), izen txarra hartzeagatik eta lehen faseko irabaziegunetara itzultzeko nostalgiarengatik. Puntu horretan aukera gutxi antzematen ditu: bere buruaz beste egitea, kartzela, ihes egitea edo laguntza eskatzea.

Lesieurek eta Rosenthalek (1991) laugarren fase bat gehitu zuten:

ITXAROPENIK EZAKO EDO ABANDONUKO FASEA

Fase honetan jokalariek onartzen dute ezingo diotela jokatzeari inoiz utzi. Jokatzeko jarraituz gero irabaziko ez dutela jakinda ere; **jokatu beharra dute**, neke-neke eginda egon arte jokatzeko dute. Une horietan negatiboa da iragarpena, beren **joko-jokabide konpultsiboari gehitzen baitzaio konpontzeko ezer egiteak ez duela ezertarako balio ustea.**



- **Kezka:** sarritan pentsatzen du jokoan eta izan dituen esperientzietan, iraganekoetan, gaur egunekoetan edo beren fantasiek eragindakoetan.
- **Tolerantzia:** Apustu handiagoak egitea edo maiztasun handiagoarekin egitea emozioa denbora luzeagoz sentitzeko.
- **Abstinentzia:** joko-saioak murrizteko edo amaitzeko saiakera eginez gero, egonezina edo suminkortasuna agertzen du.
- **Ihesbidea:** jokoa arazoetatik ihes egiteko edo gogo-aldarte hobetzeko bide bat da.

- **Galdutako dirua berreskuratzea:** galtzen duenean, jokatzen jarraitu behar du galdutakoa berreskuratzeko.
- **Gezurrak:** Familiari, lagunei edo lankideei gezurrak esaten dizkie bere joko-jokabidea ezkutatzeko.
- **Kontrolaren galera:** Zailtasunak ditu joko-jokabidea kontrolatzeko.
- **Legez kanpoko ekintzak:** zenbait alditan jokabide kriminala izan dezake jolasteko dirua lortzeko edo galdu duena berreskuratzeko.
- **Harreman garrantzitsuak arriskatzea:** jokatzen jarraitzen du jakinda ere bikotekidearekin harremana, lana edo bere bizitzan garrantzitsua den beste edozer gauza galduko duela.
- **Besteen baliabideak:** familiarengana, lagunengana edo hirugarren pertsonengana jotzen du dirua utz diezaioten, jokatzen galdu duelako edo berriz jokatu nahi duelako.





- **Esparru emozionala:** Tristetasuna, antisietatea, depresioa eta suminkortasuna. Gezurrak, autoestimu txikia.
- **Familiaren esparrua:** Familiarenganako harremanak hondatzea, konfiantzarik eza, arazo emozionalak familiako kideengan (angustia, estresa, depresioa, inpotentzia...), komunikazio-zailtasunak.
- **Lan-esparrua:** Errendimendua txikitzea, motibazioa galtzea, justifikatu gabeko hutsak. Lana uztea. Kaleratzeak.

- **Gizartearen esparrua:** Lagunak galtzea, aisialdi-jarduerak txikitzea.
- **Legaren esparrua:** Lapurretak, iruzurrak edo beste jokabide kriminal batzuk.
- **Esparru ekonomikoa:** Zorrak.
- **Beste adikzio batzuk:** Pertsona batzuek, gainera, tabako, alkohol eta beste substantzia batzuk kontsumitzen dituzte (kokaina, marihuana, haxisa...).





Jokalari arduratsua da **jokalari sozial** deritzona. Haren joko-jokabideak honako ezaugarri hauek ditu:

- **Noizean behin** jolasten du.
- **Dibertitzeko eta entretenitzeko** edo **gizarte-harreman gisa** jolasten du. **Ez, berriz, dirua irabazteko.**

- Badaki zortea izanez gero irabaziko duela, baina galdu egin daitekeela ere badaki. **Erabakiak hartzeko gertakarietan oinarritzen da**, eta apustu egin nahi duen diruaren eta horretarako denboraren kontrola mantentzen du. **Ez du haren joko-jokabidearen kontrola galtzen.**
- **Joko-esperientzia atsegina eta dibertigarria da.**
- **Jokoak sortutako gatazkarik ez du, ez familian, ez lanean, ezta arlo ekonomikoan ere.**

Jokoaren enpresa-operadoreek joko arduratsua sustatzeak honako eremu hauetan kokatzea esan nahi du:

- **Informazioa:** Zorizko jokoei eta beren arriskuei buruzko informazioa izatea, bai eta joko



arduratsuari buruz ere. Informazio hori ematea jokalariei.


- **Sentsibilizazioa:** Langileek sentsibilizazio-lanak egitea jokoarekiko adikzioa nahasmendu bat dela adierazteko, ez baita bizio bat. Pertsona kaltetuek kontrola galdu dute beren joko-jokabidearen gain.
- **Prebentzioa:** Kolektibo kalteberen inguruan hartu beharreko neurriak (adingabeak, gazteak, pertsona nagusiak, mendeko pertsonak...).
- **Arriskuak identifikatzea:** Joko-jokabidearen arriskuak ezagutzea, horiek identifikatzeko gai izateko. Horretarako tresna bat emango zaie langileei, helburu horrekin lagun dezaten.
- **Jardunbide egokiak:** Enpresek eta beren langileek joko arduratsua sustatzeko hartu beharreko neurriak.

JARDUNBIDE EGOKIAK JOKO-ENPRESEK ETA BEREN LANGILEEK JOKO ARDURATSUA SUSTATU DEZATEN

- Joko-eskaintza aisia-modu bat da, gizarte-jarduera bat, ez, berriz, irabazi ekonomikoak lortu ahal izateko bizimodua.
- Joko arduratsua zer den eta laguntza non eska daitekeen adierazten dituzten liburuxkak ematea.
- Jokalariei mailegurik ez ematea, ezta beste edozein motatako krediturik edo finantza-laguntzarik ere.
- Joko-lokaletan edo jokoaren inguruko web orrietan eskaintzen diren jokoaren inguruko informazioa ematea, baita jokoan gehiegi aritzeak eragin ditzakeen kalteei buruz ere.
- Bezeroei sustapen-mailinga ez jasotzeko eskubidea gauzatzen laguntzea.



- Publizitatea eta sustapena modu arduratsuan egiten direla bermatzea: araudia betetzen duela, ez dela engainagarria edo faltsua, eta adingabeei, pertsona kalteberei edo babesgabeko kolektiboek zuzenduta ez egotea.
- Langileei prestakuntza-ikastaroak ematea, joko arduratsuaren sustapenarekin lotutakoak.
- Jokoak egiten diren eta joko-makinak jarrita dauden leku guztietan, agerian egon beharko da, jendeak ikusteko moduan, joko arduratsuari buruzko informazioa, Jokoaren Agintaritza Arautzaileak banatutako testuan ezarritako moduan eta formatuan. Betebehar bera izango dute joko-lekuek eta -webguneek.
- Joko-lokaletan erabiltzaileen eskura dauden informazio-orrietan informatuko da adin txiikioek debekatuta dutela jokoan parte hartzea.
- Honako hauek debekatuta izango dute lokaletara sartzea:
 - Adingabeek joko-kasinoen, bingo-aretoen, joko-aretoen eta apustu-lokalen kasuan.
 - Mozkortuta zantzurik duten edo substantzia psikotropikoen eraginpean dauden pertsonak, baita ordena, lasaitasuna eta jokoen garapena aztoratu dezakeen jarrera oldarkorra edo bortitza dutenak ere.
 - Jokora sartzeko interdikzio-erregistroan dauden pertsonak, onartzeko kontrol sistemak aplikatu behar diren joko-lokaletan.



Bingoetako

langileak



Bingoa

Bingoaren modalitate guztiak bingo-lokaletan gauzatu daitezke.

Bingoaren joko-lokaletan apustuak egiteko eremu bat instalatu ahal izango da, eta haren azalera 35 m² izango da gutxienez.

Onartzeko kontrol-sistema bat eduki beharko du. Sistema horren bitartez, lokalera sartu baino lehen, pertsonaren nortasuna egiaztatuko da, baita sarbide edo joko-debekurik ez duela ere.

Bingo-aretoetan nahitaezkoa izango da sarrera eta kontrol-zerbitzuko langileak egotea, erabiltzaileen sarrera kontrolatzeko eta adingabeei eta legez debekatuta

dutenei sarrera eragozteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoen Erregelamendu Orokorrean (2016) aurreikusitakoaren arabera.





Sozietatearen gizarte-erantzukizuna

(Euskadiko Autonomia Erkidegoko Jokoaren Araudi Orokorra, 2016)



18

- Errespetua adieraztea langileekiko, jokalariekiko, gizartearekiko oro har, eta ingurumenarekiko.
- Erabiltzaileei eskaintzen diren jokoan ezaugarriei buruzko informazioa ematea, baita jokoan gehiegi aritzeak eragin liezaizkiekeen kalteei buruz ohartaraztea ere. Horretarako, joko arduratsua, neurrizkoa, behartu gabekoa eta kontzientea sustatuko da.
- Langileei joko arduratsuari buruzko prestakuntza-ikastaroak ematea.
- Agerian egon beharko da, jendeak ikusteko moduan, joko arduratsuari buruzko informazioa, Jokoaren Agintaritza Arautzaileak banatutako testuan ezarritako moduan eta formatuan.
- Beti ohartaraziko da adin txikikoek debekatuta dutela jokoan parte hartzea, eta Araudi honetan adierazitako Jokogalarazpenen Erregistroan sartzeko arau zehatzak zehaztuko dira.



Joko arduratsua

Zorizko jokoekiko eta apustuekiko ardura

Joko arduratsua da jokalariaen egoera eta baldintza pertsonalak kontuan hartzen dituzten joko-aukerak modu arrazional eta zentzuzko batean aukeratzea. Modu horretan, jokoa arazo izatera ez heltzea lortzen da. Joko arduratsuak informatutako eta hezitako erabakia dakar berarekin, beti ere, entretenimendu eta dibertimenduaren helburuarekin. Jokatutakoaren balioa inoiz ez dago jokalariai ahal duena baino altuago.

NOLA JOKATU DAITEKE MODU ARDURATSUAN?

- Diru-muga bat jarritz eta hori ez gaindituz.
- Jokatzeko denbora aurretik ezarritz.
- Jokatzeko dirurik ez eskatuz, ezta beste pertsona batzuei, ezta mailegurik ere.

- Entreenimenduari dagokion dirua jokorako erabiliz, hau da, oinarritzko beharrei (janaria, alokairua, fakturak...) zuzendutako dirua jokorako ez erabiliz.
- Jokoaren eta beste jarduera batzuen arteko oreka bilatuz.
- Irabazteko jokatu daiteke, baina argi eduki behar da galdu ere egin daitekeela.
- Jokatzeko orduan, alkoholaren kontsu-moa mugatuz.
- Emozionalki gaizki sentitzean edo hainbat arazo daudenean ez jolastuz. Izan ere, une horietan errazagoa da kontrola galtzea.
- Jokoak ez du eraginik izan behar familiarteko harremanetan edo harreman sozialetan. Ez da onartu behar.



Jarduketa egokia Bingoetan. Joko arduratsuaren alde

Joko arduratsuari buruzko informazioa

- Establezimenduek joko arduratsuari buruzko informazioa emango dute zenbait modutan: liburuxkak, posterrak, flyers-ak, eta ahal baldin bada, establezimenduan bertan dauden pantailetan ere bai.
- Liburuxka arrunt baten bitartez, bezeroek auto-debekuari buruzko informazioa izango dute. Bertan azalduko da auto-debekua non egin daitekeen, zer baldintza behar diren, eta abar. Establezimenduan lan egiten dutenek horren berri izan beharko dute, eskatzen dutenei informazioa eman ahal izateko.

- Aretoan kartelak jarri ahal izango dira, jokatzeko denbora eta diru-kopurua mugatzeko gomendatzen.
- Interesgarria izan daiteke establezimenduan joko arduratsurako gune bat izatea, baita gai horri buruz gehiago jakin nahi duten pertsonentzako gune bat ere. Horrez gain, auto-debekuari eta jokoan gehiegi aritzeagatik kaltetuentzako arretari buruzko informazioa eman daiteke. Horretarako, lokalak prestatutako pertsona bat edukiko dute aipatutako gai horiei buruz informatzeko.



Harremana bezeroekin

- Bingo-aretoetako langileak establezimendura joaten diren pertsonen arduratu behar dira.
- Bingo-lokaletan lan egiten duten langileek joko arduratsuaren jarraibideak ezagutu behar dituzte, baita establezimenduak harekiko dituen ardura-jarraibideak ere.
- Bingo-lokaletako langileek bezeroen jarrera behatuko dute. Honako hauengana gerturako dira:
 - Urduritasuna, jokabide erasotzaileak, larritasun-zantzuren bat, egonezin edo ondoeza-portaeraren bat eta abar adierazten dituzten pertsonengana.
 - Bezeroen jokatzeko moduari arretatsu begiratuko diote. Beste zenbait gauzaren artean, jokaldi bakoitzean

erosten dituzten kartoi-kopuruari begiratuko diote, gehiegizkoa izan ote daitekeen baloratzeko.

- Enplegatuei edo beste bezeroei dirua eskatzen dietenengana. Adierazi beharra dago establezimenduan lan egiten dutenek ezin dietela jokalariei dirurik eman edo laga.
- Denbora luzez, 2 ordu baino gehiagoz, eta batzuetan mahaitik altxa gabe establezimenduan jokatzeari direnengana. Beharrezkoa litzateke pertsona horiengana gerturatzea eta nola dauden galdetzea, jokoa gelditzeko xedez.
- Modu uzkurrian jokatzeari direnengana, haien jokoan, komunikatu gabe, zeharo kontzentratuta daudenengana.





Aurreko guztiaren bidez, honako hauek lortu nahi dira:

■ Jolasten ari den pertsona:

- Etena egin eta deskantsatzea.
- Bere jokabideari buruz hausnartzea.
- Egokitzen jotzen diren kasuetan, auto-debekuari buruzko informazioa ematea, bai eta horretarako behar den dokumentua bete dezakeen espazioari buruzkoa ere. Horrez gain, beharrezkoa izango da gehiegi jokatzen duten pertsonen laguntzeko baliabideak ezagutzea, egokitzen jotzen bada, horien berri emateko.
- Beharrezkotzat joz gero, adierazi beharko zaio jokatzeari utzi beharko liokeela, eta establezimendutik joateko lagundu ere bai.

LINEAKO BINGOA

- Lineako bingoetan joko arduratsuari buruzko informazioa hasierako orrian agertuko da, bezeroei ohartarazteko era arduratsuan eta kontrolarekin jokatu behar dela. Edukia erraz aurkitu behar da.
- Halaber, auto-debekuari buruzko informazioa era argian agertu beharko da, eta erraz aurkitzeko modukoa izan beharko da. Gehiegi jokatzen duten pertsonen laguntzeko baliabideentzako espazio bat egongo da web-orrian, non horretarako baliabideak egongo diren, nahi duten pertsonen kontsulta ditzaten.
- Adierazitako gaietan prestatuta dagoen pertsona batekin harremanetan jartzeko linea zuzen bat egon beharko litzateke, bezeroak kontsultak egin ahal izateko, egokitzen jotzen badu.



Arriskuak hautemateko tresna

- Identifikatu ea noizbehinkako edo ohiko jokalaria den
- Gizona edo emakumea
- Adina
- Auto-kanporatzea. BAI/EZ
- Establezimenduan egon den denbora
- Alkohol-kontsumoa: BAI/EZ
- Tabako-kontsumoa: BAI/EZ
- Substantzia-kontsumoa (cannabis, kokaina...): BAI/EZ
- Eskatu al du mailegatutako dirurik? BAI/EZ
- Ikusi al duzu atentzioa eman dizun jarrerarik? BAI/EZ
- Ikusi al duzu uneren batean familiako kideren bat lokalean sartu ote den jokatzeari utz ziezaion? BAI/EZ
- Harremanetan jarri al da familiako kideren bat establezimenduarekin pertsonaren joko-jokabideari edo egonaldiari buruzko informazioa eskatzeko? BAI/EZ
- Aipatu al du uneren batean lokalera sartzeko debekatua izan nahi duela edo egin al du autokanporatzeari buruzko kontsultarik? BAI/EZ



Baliabideak

NON EGIN AUTODEBEKUA

JOKO ETA IKUSKIZUNEN ZUZENDARITZA
(EUSKO JAURLARITZA)

1. Arabako Lurralde Ordezkaritza
Donostia kalea, 1. Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 017 020
2. Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza
Kale Nagusia, 81-1. sol. Bilbo
Tel.: 94 607 55 20
3. Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza
Vitoria-Gasteiz Hiribidea, 3-4. sol.
Donostia-San Sebastián. Tel.: 943 467 125

JOKO-MENPEKOTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO ARRETA

Gizarte-erakundeak:

Errehabilitazioan diren Arabako Jokalarien
Elkartea (ASAJER)

Araba Jenerala kalea, 25-1. sol. esk. 01005 Vitoria-
Gasteiz • Tel.: 945 140 469. asajer@telefonica.net

Ekintza Aluviz

San Joan kalea, 26 • 48901 Barakaldo
Tel.: 94 438 86 65 • ekintza.aluviz@telefonica.net

Ekintza BIBE

Alaberga auzoa, 59 behe solairu eskuina.
20100 Errenteria • Tel.: 943 340 202
ekintzabibe@gmail.com

Jokalari anonimoak

Sandiusterri, behe • 20120 Hernani
Tel.: 943 331 103 (kan.565).
jugadoresanonimoshernani@gmail.com

Euskal Osasun Zerbitzua:

Lehen mailako arreta. Familia-medikuak
Tel.: 900 203 050

MOTZ (Mendekotasunen Orientazio eta
Tratamendu Zentroa)

Julián de Arrese kalea, 5 • 01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 294 040